

## **BARANDIARAN FELIPEREN**

ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALA edo bere liburu: *La Comunidad de Pescadores de Bajura de Pasajes de San Juan (ayer y hoy). Estudio Antropológico.*

### **NIRE ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALAREN TESIA**

1982-an argitaratu zen Barandiaran Felipe antropologoaren liburu hau: *La Comunidad de Pescadores de Bajura de Pasajes de San Juan (Ayer y Hoy) - Estudio Antropológico*. Liburu haundi haundia nahiz egile beraren bibliografia osoaren barnean nahiz euskal antropologiarenean eta munduko antropologiarenean ere. Azkenengo baieztapena egiteko honako baldintzetan oinarritzen naiz: lehenik, euskal kulturatik munduko beste guztietara eskeinitako aportapen nagusi bat izatea; itsaserrien monografiaren artean bajura arrantzatik bizi diren itsaserriei buruz aurrera eraman diren ikerketen artean Barandiaran Feliperen hau, egilearen barrutitik begirata, punta puntakotarikoa izatea. Irakurlea arrazoipen honekin adots ez badator, galdera honi erantzun dezaidala arrazoipen gehiagotan sartuko banaiz: Zergatik antropologiazko kultura multzo osotik bat, bi, hiru, bakar batzu izango lirateke ikerkuntza burututako eta burutgarri guztien neurzaile?, hots, beste kulturetako ekintza ororen pisatzaile? Pentsamena pertsona guztien ezaugarri unibertsagarritzat ematen dugulako edozein pentsatutakoa unibertsagarri da bapatean, baina pentsatutako konkretu bat sekula ez da horretan bilakatu, ez eta ere bilkatuko zeren pentsamena ubertsagarrien produktitzaile den bezala pentsatutako unibertsagarri oro kulturatasun konkretuez jantzirik beti ematen da. Ederki ohartzen da edonor zenbat pentsatutako, eta nola, kultura konkretu sortzailearen barnean alde guztietara hedatzen den! Kultura batetik besterako hedapena oraindik zen-

bat aldiz ahulagoa eta eziraunkorragoa da! Azken finean kulturen arteko berdintasunak, unibertsalgarriak ezunibertsalgarri asko askotan, gehienetan!, gertatzen dira antropologiazko kultura multzoko bakoitzarentzat.

Pentsatutakoaren bapateko unibertsagarria eta konkretutasuna eguneroko bizigarri bikalatzen zaizkigu euskal kulturean. Beste horrenbestegure kultura bezala kultura haundi agintarikin aurrez aurre bizi direnetan. Nor bere kulturean pentsamena ubiertsagarrirako gaidun da eta hau erabiliz pentsatutakoaren unibertsagarrirako eskubide sozialdun. Tesia honetan oinarritzen da nire antropologia soziokulturala. Eta Barandiaran Felipe antropologoaren liburuari buruzko azalpen kritiko labur hau ikuspegi hor-tatik landua dago.

## BARANDIARAN FELIPE ANTROPOLOGOAREN BIOGRAFIA

Askotan idatzi dut nola edozein bibliografia aztertzerakoan horren egilearen biografia baita ere azertu behar dela. Edozein bibliografiaren lehen asmoa bere egilearengandik etorri da, gero irakurleek heuren leporatuko diote.

Barandiaran Felipe antropologoaren biografiaz hemen hitzegiterakoan bere antropologiazko ikerlan eta idazlanei dagokionez bakarrik arituko naiz.

Orain aztertzen dudana liburua 68 urte betetzen zituen urtean, hots, 1982-an, argitara eman zuen Barandiaran Felipek. Bere lehen liburua antropologian. Artikulu batzu iadanik azalduak zeuzkan. Hori ez da normalki ikerlarigoan ematen dena. Zer gertatu da antropologo honen bizitzan?

Gazte gaztetatik bere osaba Barandiaran Joxemielek antropologia-rako grina eta sena piztuko zaizkio. Ikasketa nagusiak, orduan Euskal Herrian egin zitezkeen bakarrak pertsona zientzien arloan, Gasteizko apezgaitegian burutu zituen. Dexente urte beranduago Parisko Institut De Paris, Musée de L'Homme eta Ecole Pratique des Hautes Etudes En Sciences Sociales delakoetan jarraitu zituen, lekuko diplomak eskuratuz; gainera, Leroi-Gourhan arkeologoaren zuzendaritzapean lekuan lekuko ikerlanetan jardun zen. Bien bitartean, irakasle izan zen Cuban, deserriratu zutenean; ondoren, Euskal Herrian eta Espainian. Nerbioetako gaisotasunak jotzen du, eta urte batzuen buruan hori gaineratzerara iristen da. Apeziz izanik, lan horretan beti aritu da, batzutan oso hurbiletik bestatzutan urrutigotik. 1977-an bere betiko lanetara bihurtzen da, Pasai Donibanen sartuz: apezgintzan eta antropologiazko ikerkuntzan gogoz eta sakon hasten da itsaserrian. Bost urtean idatzita uzten du hemen aipatzen ari naizen bere liburua.

Biografia labur honen bidez ulertzen da zergatik egileak hain adin haundian lehen liburua argitara eman duen; zergatik egileak antropologia gaiak idatzi duen liburu honetan; zergatik egileak liburua lodia egin duen datuen aldetik; zergatik egileak liburuaren tesi nagusitzat Pasai Donibane-

ko bajurako arrantzalegoaren bizimoduaren antolatzaile eta determinatzailetzat ekonomiaren eraginaz gainera elkarbizipenarena jotzen duen; zergatik egileak euskal antropologia historikoan oraindik monografikoki landu gabea zegoen itsaserria aztergaitzat hartu duen.

Barandiaran Felipe antropologoaren *La Comunidad de Pescadores de Bajura de P. S...* delako liburuaren argitalpena eta bertan ematen den tesi nagusiaren defendapena biografiako ikuspuntutik lehen lehenik, beraz, ulertzen hasi behar da.

## LIBURUA BERA

Egileak berak esaten digu nola euskal itsaserriez ezer gutxi egin izan den gaurrate. Liburuari egindako hitzaurrean, Caro Baroja Juliok baiesten du esapen hori: “La obra más acabada que hay, a mi juicio, acerca de una comunidad de pescadores” (CARO BAROJA, J., 1982: 10). Ez da esaten euskal itsaserri ala erdal itsaserri bati buruzkoa den. Nik uste azken hone-taz ari dela Caro Baroja.

Horregatik bakarrik liburu hau haunditzat jo behar dugula esaten dut. Gainera beste arrazoi batzuegatik.

Euskal antropologiaren historian edozein motatako herriri buruzko lan monografiko oso gutxi egin izan da. Hau da beste merezimendu bat Barandiaran Feliperen liburu honentzat. Hutsunea bergogoratu digu egileak. Nik uste dut, baita ere, edozein antropologo profesionalaren bibliografian, eta ahalik haseran, herri edo komunitate bati buruzko monografia oso bat beti agertu behar lukela, gaurregundik aurrera. Monografiarako aukeatutako herria ahalik antropologoa bera gehien bizi izandakoa izan dadin aholkatzen dut, baita ere, zeren pertsona zientzietan ezagupena beste zientzietan ez bezalako graduan sujetoa ikasgaiaren zati da eta ikerkuntza onak egitera iristeko sujeto-ikasgaia binomioa gehien interrelazionatuta dagoen tokitik hastea bezalako ikasketarik ez dago.

Egileak 415-416 orrialdeetan Pasaia Donibane itsaserrian azken 25 urte hauetan emandako aldakuntza sozio-kulturala agertzeko kontutan eduki dituen bi baldintza epistemologiko aipatzen dizkigu: “La primera tiene que ver con el papel que juega la descripción del proceso histórico en la comprensión de la cultura y en la búsqueda de los orígenes, y consiguiente evolución de los elementos culturales”, eta “el segundo elemento epistemológico que no es otro que el de tratar de comprender al grupo pescador, siempre específico, como englobado en otro mayor, o sea en el pueblo de Pasajes de San Juan”. Denboraren garrantzia alde batetik eta, bestetik, pertsonatalde espezifiko desberdinen eta elkarren hondoan daudenen arteko harremanena erakusten digu egileak. Egunoroko bizitzan, pertsona batengan nahiz pertsona talde konkretu batengan bere hurbil hurbilekoak, auzokoak urrutiko beste edozeinek baino eragin gehiago beti edukitzen du. Honen lekuko ederra Barandiaran Felipe antropologoaren azterlan hau. Esate batetarako: euskaldun arrantzale eta euskaldun lehortarren arteko

harremanak; euskaldun eta erdaldunen harremanak. Denborari edo historiari dagokionez arrazoi haundia dauka egileak bere garrantzia azpimarkatzen duenean Pasai Donibanekeo itsaserri talde espezifikoarene bizimodua agertzerakoan. Halere, hor bi denbora mota bereiztu behar dira eta, maiz sarri, pertsona zientzilariek egiten ez dituztenak eta, batipat, antropologook soziologook eta psikologook egin beharko genituzkenak: bi, hiru belaunaldi segidakoan artean ematen den denbora kontzeptua, ahozko eta bizimoduzkoa delarik, eta hortik gorako belaunaldien artean ematen den denbora kontzeptua, intelektuala, lege pertsonak, gobernariak, ikerlariak bakarrik zuzen zuzenean ezagutzen dutena. Bi denbora mota desberdinak dira. Hauen arteko bereizkuntza ez du egiten egileak, bestalde beharrezkoa litzatekena istaszerri aztertuaren bizimoduko, kulturako elementu iraunkor bakoitzaren zergatia eta denborazko iraunkortasuna ulertzeko.

Egileak liburuaren tesizat ematen duena, hain zuzen 17. atalean, “El Desenganche” (ok. 279-290), honela ikusten dut nik.

Itsaserri aztertuaren tradiziozko bizimodua duela 25 urte aldatzen hasten bada eta ondorio bezala lehen pertsonatalde horren buru, agintari zena, hau da, eliza, bertakoa eta gainekoa, eta bere ordez politikazko mugimendu batzu azaltzen badira, eta aldaketa hori elkarbizipenak eragindako pentsamenduak batipat eragin badu, nik honako ohar hauek egiten dizkiot tesia honeri: bat, epistemologiako baldintza bati esker, denborazkoa alegia, ezin dugu ahaztu aldaketa hau baino aurreragotik beste zeintzu eta nolako aldaketa egon ziren ikustea premiazkoa dela pertsonatalde baten bizimoduaren une konkretu batetan ematen ari den aldaketa ulertzerakoan; bi, egileak aldaketa horri garrantzi haundia eman dio, Euskal Herrian, gehiago edo gutxiago, beste horrenbeste eman zela esanaz; beraz, aldaketa itsaserri honen beraren gainetik dihoa beste herri batzuetakoekin uztartuta, eta hori ederki azpimarkatzen du egileak; aldaketa honen bultzagarria zein den esaterakoan, egileak itsaserria oso osorik kontutan hartu du eta hortik kanpokorik ez, eta ikusi du nola itsaserrian bizimoduari buruzko pentsamenduaren aldaketa izan den bizimodu antolamendu berri baten eragile nagusi, baina nik uste dut hurbilean, hau da, itsaserrian pentsamendu aldaketa bizimoduaren eragile izan dena, urrutian, esate baterako Euskal Herrian eta bere inguruko herrietan, bizibidea, ekonomia eragile nagusi izan dela, Euskal Herrian 1955-etik aurrera ematen den boom ekonomikoa hain justu, bere barneko pentsamendu nagusiak (batipat azken gerren hondotikakoak) erdiz erdi astintzen dituela.

Guzti honekin nahi dut zera esan: epizentroa ekonomikoa bada, perizentroa izan daitekela pentsamenduzkoa; bi eragileen artean ezin dela egin erabateko jerarkiarik, zeren elkar arazitzaile direlako; prozesu batetan oinarritutako ikuspegia hartu behar dugula, nahiz eta bere puntu bakar batetan azterketa burut genezakeen orokortasuna desegiten ez dugun bitartean.

Dena den, Barandiaran Felipe antropologoak euskal antropologiari eta kanpokoari pentsabide haundia eskeini digu bere liburu honetan, eta aportapen teoriko ezahantzigarriak baita ere.

## **EUSKAL ANTROPOLOGIA HISTORIKOTIK BEGIRATUTA**

Ikerlari pertsonaia mailan, haundienetako bilakatu zaigu liburu honen bidez bere egilea. Hainbeste eragozpen artetik aurreraino urten delako. Antropologoaren biografiaren sailean lekuko aztergarri dugu egilea, hemendik aurrera.

Itsaserrien azterketen arloan, aintzindari.

Etnografia eta pentsamendua batera antropologian erabiltzearen aldeko lan haundi bat eskaini digu orain. Datotzen urte hauetan, nahiz eta bere adinean aurreratua egon, egileak antropologiazko pentsamendua, liburu sakon honetan agertua, bere neurri guztikin ematen ahalegin dadila da nire asmorik biziena berarentzat.

*Apalategi Begiristain Joxemartin  
Antropologo eta irakasle*